

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

112/2022 Foru Agindua, martxoaren 1ekoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitziren balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko informazio aitortpenaren 189 eredia, bai eta haren barruko orrien ordezkari ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, 289 eredia onesten duena finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan

2021eko ekitaldirako informazio aitortpenen aldaketak osatu behar direnez, aldatu egin behar dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua, balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko informazio aitortpenaren 189 eredia onesten duena, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, 289 eredia onesten duena finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatuaren ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitziren balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko informazio aitortpenaren 189 eredia, bai eta haren barruko orrien ordezkari ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio ekainaren 1eko 318/2009 Foru Aginduari:

Bat. Aldatu egiten da hirugarren apartatuaren Bat zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

“Aurreko artikuluko 1. apartatuan aipatutako 189. eredia aurkeztu behar dutenek honako datu hauek eman beharko dizkiote Zerga Administrazioari, agindu honen eranskinetan jasotako zehaztapenen arabera:

a) Pertsona edo erakunde titularren izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, abenduaren 31koak, kapital sozialeko edo erakunde juridikoen funts propioetako akzio eta partaidetzenak, edo hirugarrenei kapital propioak lagatzearen balore adierazgarrienak, bi kasuetan merkatu antolatuetan negoziatuta.

b) Beren titulartasuneko akzioen, partaidetzen edo baloreen kopurua eta mota, eta akzioen edo partaidetzen kasuan, haien balio izendatua.

c) Balorazioa, kontuen, eragiketen eta finantza aktiboei buruz eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharra arautzen duen abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera”

Bi. Aldatzen da “BALORE KOPURUA” eremua, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 130-145 posizioak dituen, II. eranskinean ageri diren 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan. Honela geratzen da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
130-145	Zenbakizkoa	<p>BALORE KOPURUA</p> <p>Merkatu antolatu batean negoziatutako erakunde juridikoen kapitaleko edo funts propioetako akzioen edo partaidetzen guztizko kopurua jasoko da, merkatu antolatuetan negoziatutako kapital propioak hirugarrenei lagatzearen balio adierazgarriak edo inbertsio kolektiboko erakunde baten kapital sozialeko edo ondare funtseko akzioak edo partaidetzak ordezkatzan dituztenak, aitortuak partaidetza ehuneko jakin bat badu.</p> <p>Ondorio horietarako, aitortutako balore bat baino gehiago badaude, haietako bakoitzean, partaidetza ehuneko jakin bat daukan balore guztien kopurua jarri behar da.</p> <p>Eremu hau beteko da bakar-bakarrik “BALORE GAKOA” eremuan, 81 posizioan, “A”, “B” edo “C” jarri bada.</p> <p>Bi eremutan banatzen da:</p> <p>130-139 Balioen zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>140-145 Balioen zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>

Hiru. Eremu berri bat gehitzen da “BALORE NOMINALA”, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 146-161 posizioak dituen, II. eranskinean ageri diren 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan. Honela geratzen da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
146-161	Zenbakizkoa	<p>BALORE NOMINALA</p> <p>“A” gakoa “ALORE GAKOA” eremuan jartzen denean (2 motako erregistroko 81. posizioa, aitortuaren erregistroa), aitortuari dagokion akzioen edo partaidetzen nominal unitarioa jasoko da merkatu antolatuetan negoziatutako erakunde juridikoen kapital sozialean edo funts propioetan.</p> <p>146-159 Eragiketaren nominal unitarioaren zenbatekoaren zati osoa.</p> <p>160-163 Eragiketaren nominal unitarioaren zenbatekoaren zati hamartarra.</p>

Lau. “ZURIUNEAK” eremua, 146-389 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa), 164-389 posizioetara aldatzen da.

Bigarren artikulua. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, onesten duena 289 eredu finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio irailaren 27ko 529/2017 Foru Aginduari:

Bat. Aldatu egiten da 3. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

“3. artikulua. Informazioaren gaia.

Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, 289. eredu aitortu beharko da foru agindu honen III. eranskinean zehaztutako informazio guztia, 5. artikuluan 2. apartatuan aurreikusitako salbuespenak alde batera utzi gabe, finantza kontuen titulartasuna edo kontrola duten eta otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretu honetako 4. artikuluan eta I. eranskinean zerrendatzen diren herrialde edo jurisdikzio horietako batean egoitza fiskala duten pertsonen edo erakundeen dagokienez.

Hala ere, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinean jasotako arreta egokiari buruzko arauak aplikatu ondoren ondorioztatzen bada ez dagoela informazioa jakinarazi beharreko konturik, finantza erakundeek nahitaez egin behar duten aitortpen horren edukia Foru Agindu honen III. eranskinaren 1-5 eta 6.2 puntuetara mugatuko da.”

Bi. Aldatzen da I. eranskina-Egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinaren arabera, finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruan, finantza kontuen urteko informazio aitortpena (289 eredu) aurkeztu behar duten.

"OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRAK (*)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2022 ETA HURRENGOAK	2022 ETA HURRENGOAK	2022 ETA HURRENGOAK
Alemania Austria Belgika Bulgaria Zipre Kroazia Danimarka (**) Eslovenia Estonia Finlandia Frantzia (**) Grezia Hungaria Irlanda Italia Letonia Lituania Luxemburg Malta Herbehereak (**) Polonia Portugal Txekiar Errepublika Eslovakiako Errepublika Errumania Suedia	Liechtenstein San Marino Andorra Monako Suitza	Albania Antigua eta Barbuda Saudi Arabia Argentina Aruba (Herbehereak) Australia Azerbaijan Barbados Belize Bonaire (Herbehereak) Brasil Brunei Darussalam Kanada Txile Txina Kolonia Korea Costa Rica Curaçao (Herbehereak) Dominika Ekuador Ghana Gibraltar (Erresuma Batua) (***) Granada Groenlandia (Danimarka) Guernsey (Erresuma Batua) Hong Kong India Indonesia Islandia Cook uharteak (Zeelanda Berria) Man uharteak (Erresuma Batua) Feroe uharteak (Danimarka) Israel Jamaika Japonia Jersey (Erresuma Batua) Kazakhstan Kenia Libano Macao (Txina) Malaysia Maldivak Maroko Maurizio Mexiko Montserrat Nigeria Niue Norvegia Kaledonia Berria (Frantzia) Zeelanda Berria Oman Pakistan Panama Peru Erresuma Batua (**)

"OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRAK (*)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2022 ETA HURRENGOAK	2022 ETA HURRENGOAK	2022 ETA HURRENGOAK
		Errusia Saba (Herbehereak) Samoa Sain Kitts eta Nevis San Eustakio (Herbehereak) San Martin (Herbehereak) Saint Vincent eta Grenadinak Santa Luzia Seychelleak Singapur Hegoafrika Turkia Uruguai Vanuatu"

(*) Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretua, zeinak ezartzen baitu identifikatu beharra dagoela finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza eta haiei buruzko informazioa eman beharra dagoela elkarrekiko laguntzaren esparruan.

(**) AMAC-en eraginpean izango diren herrialdeen eta jurisdikzioen eta alde biko hitzarmena duten herrialdeen zutabearen agertzen diren lurraldeak izan ezik [Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikularen b) eta c) letrak].

(***) Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuaren artekoa, Gibraltar-i buruzkoa, Madrilen eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.

Hiru. Aldatzen da II. eranskina- Herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, elkarrekiko laguntzaren esparruan hainbat finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta haien inguruko informazioa emateko betebeharra ezartzen duenak, eranskinaren VIII. atalaren D.4 apartatuan aipatutako «Jurisdikzio parte-hartzailatzat» jotzen direnena.

"PARTE HARTZEN DUTEN JURISDIKZIOEN ZERRENDA		
Albania	Gibraltar (Erresuma Batua) (*)	Mexiko
Alemania	Granada	Monako
Andorra	Grezia	Montserrat (Erresuma Batua)
Aingira (Erresuma Batua)	Groenlandia (Danimarka)	Nauru
Antigua eta Barbuda	Guernesey (Erresuma Batua)	Nigeria
Saudi Arabia	Hong Kong	Niue
Argentina	Hungaria	Norvegia
Aruba (Herbehereak)	India	Kaledonia Berria (Frantzia)
Australia	Indonesia	Zeelanda Berria
Austria	Irlanda	Oman
Azerbaijan	Man uhartea (Erresuma Batua)	Herbehereak
Bahrain	Islandia	Pakistan
Bahamak	Kaiman uharteak (Erresuma Batua)	Panama
Barbados	Cook uharteak (Zeelanda Berria)	Peru
Belgika	Feroe uharteak (Danimarka)	Polonia
Belize	Marshall uharteak	Portugal
Bermuda (Erresuma Batua)	Turk eta Caico uharteak (Erresuma Batua)	Qatar
Brasil	Birjina uharte britainiarak (Erresuma Batua)	Erresuma Batua
Brunei Darussalam	Israel	Txekiar Errepublika
Bulgaria	Italia	Eslovakiar Errepublika
Kanada	Jamaika	Errumania
Txile	Japonia	Errusia

"PARTE HARTZEN DUTEN JURISDIKZIOEN ZERRENDA		
Txina	Guernesey (Erresuma Batua)	Samoa
Zipre	Kazakhstan	Saint Kitts eta Nevis
Kolonia	Kenia	San Marino
Korea	Kuwait	Sint Maartin (Herbehereak)
Costa Rica	Letonia	Saint Vincent eta Grenadinak
Kroazia	Libano	Santa Luzia
Curaçao (Herbehereak)	Liberia	Seychelleak
Danimarka	Liechtenstein	Singapur
Dominika	Lituania	Hegoafrika
Ekuador	Luxemburg	Suedia
Arabiar Emirerri Batuak	Macao	Suitza
Eslovenia	Malaysia	Turkia
Estonia	Maldivak	Uruguai
Finlandia	Malta	Vanuatu"
Frantzia	Maroko	
Ghana	Maurizio	

(*). Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuaren artekoa, Gibraltar-i buruzkoa, Madrilén eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.

Lau. Aldatzen da III. eranskinaren 6. apartatua (Ekarrekiko laguntzaren arloko finantza kontuen urteko informazio aitortpenaren edukia, 289 eredu), eta honela idatzita geratzen da:

"6.1 Aitorpen osagarria edo ordezkoa. Finantza erakundeek egindako aitortpen osagarriak edo ordezkoak biltzen dituzten mezu informatikoak Zerga Administrazioaren interneteko egoitza elektronikoan une bakoitzean jasota dauden baldintzetan aurkeztuko dira.

6.2 Jakinarazi beharrik gabeko kontuen aitortpena"

Azken xedapena

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022an aurkeztuko diren 2021eko ekitaldiko aitortpenei aplikatuko zaie, lehenengo aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 1a

*Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun,
Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA